

I. ERANSKINA, AZAROAREN 8KO 228/2011 DEKRETUARENA IRAKASLE OSOEN IRAKASKUNTZA- ETA IKERKUNTZA-JARDUERA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Hauek dira egiaztapena lortzeko ezinbesteko baldintzak: -

- Gutxienez, 80 puntu lortzea; horrez gain, 1. atalean 50 puntu eskuratzea, eta, 2. atalean, 25 puntu.

- Ikerkuntza-jarduerako hiru aldirekin pareka daitezkeen merezimenduak egiaztatzea; aldi horiek irakasleen ordainsariei buruzko abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuan egindako zehaztapenen arabera nahiz horri egindako aldaketen arabera aitortuko dira. Baldintza hori ez da nahikoa izango, baina bai ezinbestekoa aldeko egiaztapena lortzeko.

- Gutxienez, bi doktoretza-tesi zuzenduta izatea; gutxienez, bi ikerkuntza-proiekturen ikertzaile nagusi izatea; edo, sei hilabetez, atzerriko unibertsitate batean doktoratu ondoko egonaldia egina izatea. Baldintza hori ez da nahikoa izango, baina bai ezinbestekoa aldeko egiaztapena lortzeko.

ATALAK	ATAL BAKOITZETIK LOR DAITEKEEN <u>GEHIENENKO</u> PUNTUAZIO	EGIAZTAPENA LORTZEKO PUNTUAZIO <u>MINIMOA</u>
1.- Ikerkuntza jarduera eta ezagutza zabaltzea	70 puntu	50 puntu
2.- Irakaskuntza jarduera eta lan esperientzia	35 puntu	25 puntu
3.- Kudeaketa jarduerak	5 puntu	
GUZTIRA		80 puntu

II. ERANSKINA, AZAROAREN 8KO 228/2011 DEKRETUARENA IRAKASLE AGREGATUEN IRAKASKUNTZA- ETA IKERKUNTZA-JARDUERA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Egiaztapena lortzeko beharrezkoa da:

- Gutxienez, 65 puntu lortzea; horrez gain, 2. atalean 35 puntu eskuratzea, eta, 3. atalean, 10 puntu.
- Ikerkuntza-jarduerako aldi batekin pareka daitezkeen merezimenduak egiaztatzea; aldi hori irakasleen ordainsariei buruzko abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuan egindako zehaztapenen arabera nahiz horri egindako aldaketen arabera aitortuko da. Baldintza hori ez da nahikoa izango, baina bai ezinbestekoa aldeko egiaztapena lortzeko.

ATALAK	ATAL BAKOITZETIK LOR DAITEKEEN <u>GEHIENEO</u> PUNTUAZIO	EGIAZTAPENA LORTZEKO PUNTUAZIO <u>MINIMOA</u>
1.- Ikasketa eta ikerkuntza prestakuntza	10 puntu	
2.- Ikerkuntza jarduera eta ezagutza zabaltzea	65 puntu	35 puntu
3.- Irakaskuntza jarduera eta lan- esperientzia	30 puntu	10 puntu
4.- Kudeaketa- jarduerak	5 puntu	
GUZTIRA		65 puntu

III. ERANSKINA, AZAROAREN 8KO 228/2011 DEKRETUARENA IRAKASLE ATXIKIEN IRAKASKUNTZA- ETA IKERKUNTZA-JARDUERA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Egiaztapena lortzeko beharrezkoa da:

- Gutxienez, 55 puntu lortzea, eta, horrez gain, 2. atalean, 25 puntu eskuratzea.
- Argitalpenei dagokienez, eskatzailearen ezagutza-arloarekin lotutako kalitate handiko (JCR edo baliokidea) bi ekarpen, gutxienez, argitaratu izana egiaztatu beharko da. Baldintza hori ez da nahikoa izango, baina bai ezinbestekoa aldeko egiaztapena lortzeko.

ATALAK	ATAL BAKOITZETIK LOR DAITEKEEN <u>GEHIENENKO</u> PUNTUAZIO	EGIAZTAPENA LORTZEKO PUNTUAZIO <u>MINIMOA</u>
1.- Ikasketa eta ikerkuntza prestakuntza	15 puntu	
2.- Ikerkuntza jarduera eta ezagutza zabaltzea	65 puntu	25 puntu
3.- Irakaskuntza jarduera eta lan- esperientzia	25 puntu	
4.- Kudeaketa- jarduerak	5 puntu	
GUZTIRA		55 puntu

**IV. ERANSKINA, AZAROAREN 8KO 228/2011 DEKRETUARENA
IKERKETA-IRAKASLEEN KATEGORIAN KONTRATATUTAKO IKERTZAILEEN
IRAKASKUNTZA- ETA IKERKUNTZA-JARDUERA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

Egiaztapena lortzeko beharrezkoa da:

- Gutxienez, 90 puntu lortzea, eta, horrez gain, 1. atalean, 75 puntu eskuratzea.
- Ikerkuntza-jarduerako hiru aldirekin pareka daitezkeen merezimenduak egiaztatzea; aldi horiek irakasleen ordainsariei buruzko abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuan egindako zehaztapenen arabera nahiz horri egindako aldaketen arabera aitortuko dira. Baldintza hori ez da nahikoa izango, baina bai ezinbestekoa aldeko egiaztapena lortzeko.
- Gutxienez, hiru doktoretza-tesi zuzenduta izatea; gutxienez, hiru ikerkuntza-proiekturen ikertzaile nagusi izatea; urtebetez, atzerriko unibertsitate batean doktoratu ondoko egonaldia egina izatea; edo kanpo-kontratuak lortzeko itzelezko gaitasuna duela egiaztatzea. Baldintza hori ez da nahikoa izango, baina bai ezinbestekoa aldeko egiaztapena lortzeko.

ATALAK	ATAL BAKOITZETIK LOR DAITEKEEN <u>GEHIENeko</u> PUNTUAZIO	EGIAZTAPENA LORTZEKO PUNTUAZIO <u>MINIMOA</u>
1.- Ikerkuntza- jarduera eta ezagutza zabaltzea	90 puntu	75 puntu
2.- Irakaskuntza- jarduera eta lan- esperientzia	15 puntu	
3.- Kudeaketa jarduerak	5 puntu	
GUZTIRA		90 puntu

**V. ERANSKINA, AZAROAREN 8KO 228/2011 DEKRETUARENA
DOKTORE IKERTZAILEEN KATEGORIAN KONTRATATUTAKO IKERTZAILEEN
IRAKASKUNTZA- ETA IKERKUNTZA-JARDUERA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

Egiaztapena lortzeko beharrezkoa da:

- Gutxienez, 85 puntu lortzea, eta, horrez gain, 2. atalean, 70 puntu eskuratzea.
- Ikerkuntza-jarduerako bi aldirekin pareka daitezkeen merezimenduak egiaztatzea; aldi horiek irakasleen ordainsariei buruzko abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuan egindako zehaztapenen arabera nahiz horri egindako aldaketen arabera aitortuko dira. Baldintza hori ez da nahikoa izango, baina bai ezinbestekoa aldeko egiaztapena lortzeko.

ATALAK	ATAL BAKOITZETIK LOR DAITEKEEN <u>GEHIENENKO</u> PUNTUAZIO	EGIAZTAPENA LORTZEKO PUNTUAZIO MINIMOA
1.- Ikasketa eta ikerkuntza prestakuntza	10 puntu	
2.- Ikerkuntza- jarduera eta ezagutza zabaltzea	85 puntu	70 puntu
3.- Irakaskuntza- jarduera eta lan- esperientzia	10 puntu	
4.- Kudeaketa- jarduerak	5 puntu	
GUZTIRA		85 puntu

**VI. ERANSKINA, AZAROAREN 8KO 228/2011 DEKRETUARENA
IRAKASLE LAGUNTZAILEAK KONTRATATZEKO ALDEKO TXOSTENA EGITEKO
IRIZPIDEAK**

Egiaztapena lortzeko, gutxienez, 55 puntu lortu behar dira guztira.

ATALAK	ATAL BAKOITZETIK LOR DAITEKEEN GEHIENENKO PUNTUAZIO	EGIAZTAPENA LORTZEKO PUNTUAZIO <u>MINIMOA</u>
1.- Ikasketa- prestakuntza	10 puntu	
2.- Irakaskuntza- jarduera	40 puntu	
3.- Lan- jarduera, ikerkuntza- jarduera eta ezagutza zabaltzea	55 puntu	
4.- Kudeaketa- jarduerak	5 puntu	
GUZTIRA		55 puntu

**VII. ERANSKINA, AZAROAREN 8KO 228/2011 DEKRETUARENA
DOKTORE-TITULUA DUTEN UNIBERTSITATE PRIBATUETAKO IRAKASLEEN
IRAKASKUNTZA- ETA IKERKUNTZA-JARDUERA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

Egiaztapena lortzeko, gutxienez, 60 puntu lortu behar dira; horrez gain, 2. atalean 25 puntu eskuratu behar dira, eta, 3. atalean, 20 puntu.

ATALAK	ATAL BAKOITZETIK LOR DAITEKEEN GEHIENENKO PUNTUAZIO	EGIAZTAPENA LORTZEKO PUNTUAZIO <u>MINIMOA</u>
1.- Ikasketa eta ikerkuntza prestakuntza	15 puntu	
2.- Ikerkuntza- jarduera eta ezagutza zabaltzea	60 puntu	25 puntu
3.- Irakaskuntza- jarduera eta lan- esperientzia	30 puntu	20 puntu
4.- Kudeaketa- jarduerak	5 puntu	
TOTAL		60 puntu